



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

**Europar Kontseiluaren ohiz kanpoko bilera (EBTaren 50. artikulua)
Brexit negoziazioen aurrerapenak eta etorkizuneko harremanetarako
orientazioen proiektua
Brusela, 2018ko martxoaren 23a**

Europar Batasuneko 27 estatu kideetako estatuburu eta gobernuburuak (guztiak Erresuma Batukoak izan ezik) martxoaren 23an bildu ziren EBren negoziazio jarraz eztabaidatzeko eta etorkizunean Erresuma Batuarekin izango diren harremanen esparruaz lehen orientazioen multzo bat erabakitzeko.

2017ko abenduan hogeita zazpiek erabaki zuten nahikoa aurrerapen lortu zutela EBk eta Erresuma Batuak lehen fasean aztertzea erabaki zuten hiru arloetan: (1) Herritarren eskubideak; (2) Irlandaren eta Ipar Irlandaren arteko mugaren konponbidea; (3) Finantza akordioa.

Europar Kontseiluaren martxoko bilera hau erretiratze akordioari buruzko negoziazio fasearen barruan kokatzen da. Etapa honetan, akordio honetan lan egiteaz gain, etorkizuneko harreman esparruaren eta trantsizioaldiaren gainean egin da lan.

Hitzartutako aurrerapenei dagokienez, Kontseiluak adierazi duenez:

(...) herritarren eskubideez, finantzen arazoaz, erretiratzearen beste gaiez eta trantsizioaldiaz erretiratze hitzarmenaren lege testuari buruz negoziatzaileek lortu dituzten akordioak begi onez hartzen ditu. Europar Kontseiluak erabaki gabe dauden gaiek adostasuna behar dutela gogoratzen du, eta negoziatioek unera arte hartutako konpromiso guztiak errespetatzen diren bitartean baino ezin duela aurrera egin, ildo horretan Theresa May lehen ministroak Irlanda / Ipar Irlanda dela-eta eman dituen idatzizko bermeak txalotzen ditu. Europar Kontseiluak erretiratzeaz erabaki gabe dauden gaietan eta erretiratze akordioaren lurralde aplikazioarekin zerikusia duten gaietan esfortzuak areagotzeko eskatzen du, bereziki Gibraltari dagokion guztian, eta berri dio ez dagoela ezer erabakita dena erabakita egon arte¹.

Trantsizioaldiko zertzeladak

Orientazio horiek Michel Barnier Europar Batasunaren negoziatzaile bereziak etorkizuneko harreman esparrua Erresuma Batuarekin eztabaidatzeko agindua osatzen dute.

¹ <http://www.consilium.europa.eu/media/33458/23-euco-art50-guidelines.pdf>

Joan den martxoaren 19an Michel Barnier eta Davis Davis, Theresa Mayk Erresuma Batua ateratzea negoziatzeko izendatutako gizona, helduta zeuden adostasun batera xedapen hauei buruz. Testua britainiar lehen ministroaren esperantzen azpitik zegoen, baina Europar Batasunak amore ematen du puntu batzuetan testu horretan.

Erkidegoaren zuzenbidea

- Trantsizio edo aplikazio aldi bat egongo da, 2019ko martxoaren 29an hasi eta 2020ko abenduaren 31n amaituko dena. Hau da, trantsizio aldiak 21 hilabete iraungo du eta amaitu ondoren Erresuma Batua erkidegoaren bloketik guztiz kanpoan egongo da.
- 2019ko martxoan trantsizio aldia hasten denetik, Europako legeak Erresuma Batuan aplikatzen jarraituko da. Are gehiago, Erkidegoaren altxorren aldaketarik badago, Europar Batasunak trantsizioaldian onartuta, Erresuma Batuan ere aplikatuko dira.
- Erresuma Batuak ez du ordezkartzarik ez erabakimenik izango Europako erakundeetan. Europar Kontseiluak berriro esan du Batasunak bere autonomia mantenduko duela erabakiak hartzeari dagokionez, Erresuma Batua, hirugarren herrialde modura, Batasunaren erakunde, organo, bulego eta agentzien erabakiguneetatik baztertuz.
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren egitekoa ere guztiz errespetatuko da.

Merkatu bakarra

Harreman ekonomikoaren erdiguneari dagokionez, Europar Kontseiluak berretsi egin du merkataritza librearen akordio batera heltzeko gogoia. Hala ere, azpimarratu egin du akordio horrek ezin eskain diezazkiokeela estatu kideen onura berberak eta ezin izan daitekeela merkatu bakarrean edo merkatu bakarraren zati batean parte hartzearen baliokidea. Beraz:

- Erresuma Batua merkatu bakarrean eta Batasunean mantenduko da aldi horretan.
- Erresuma Batuak EBren eta beste herrialdeen artean dauden merkataritza akordioetan parte izaten jarraituko du.
- Bere merkataritza akordioak negoziatu, izenpetu eta berretsi ahalko ditu, baina trantsizio aldi hau amaitzen denean baino ez dira hasiko indarrean.
- Erresuma Batuak aldi horretan arrantza harrapaketa parte hartuko duela bermatzen da. Era berean, 2021eko urtarrilera arte, Europako itsasontziek britainiar uretan arrantza jarraitu ahal izango dute. *Hau gai larria da britainiar batzuentzat, itsasbazterreko arrantza ontziek bereziki kaltea izango luketelakoan, eta, horrekin, komunitateen oparotasunak ere bai.*
- Gainera, Erresuma Batua Arrantza Politika Komunaren parte izaten jarraituko du, nahiz eta arauetan parte-hartze zuzenik izango ez duen.

Gai erabaki gabeak eta eztabaidatsuak: herritarren eskubideak, Irlanda eta Gibraltar

Herritarren eskubideetan adostasuna lortu da. Aldi honetan Erresuma Batura heltzen diren europarrek Brexitaren aurretik heldu zirenek dituzten eskubide eta berme berak izango dituzte.

Baina ez dago oraindik adostasunik Irlandako Errepublikaren eta Ipar Irlandaren arteko mugaz. Irlandako uhartean 'muga gogor' bat saihesteko EBk egin duen proposamena britainiarrek onartzen ez dutenez, Ipar Irlandak merkatu bakarrean eta aduana batasunean jarraituko du.

Gibraltarri dagokionez, Europar Batasunak Gibraltar sartu du behin-behinean Brexitaren ondorengo 21 hilabeteko trantsizioaldiaren barruan. Mariano Rajoyren gobernuak adierazi du bere betoaz EBk berme gehigarriak emango dizkiola espero duela. Espainiako Gobernuak amore ematea nahi du Gibraltarreko aireportua elkarrekin erabiltzeaz eta Gibraltarreko zerga jokabide erasokorraz; baina EBtik uste dute ez dela egongo trantsizio akordio aplikagarriak ez badute aurretiaz alde biko adostasunik lortzen Londresek eta Madrilek.